

Felix Larrañaga Muguruza
Soraluze, Gipuzkoa (1925)

Aurkibidea

Biografia

1951ko urtarrilaren 20an Soraluzetik Buenos Airesera joan zen. Urte askoan "Zazpirak-Bateko" lehendakari izan zen. "Eibar" izena duen pneumatiko lantegi bat du eta argentinar batekin ezkondua dago.

Zintak

SOR-016

- **Proiektua:** Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Data:** 2002-02-01
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Soraluzetik Argentinara; hango hasierako egunak

- **Erref:** SOR-016/002
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Felix Argentinara iritsi zen 1951ko urtarrilaren 20an. Bakarrik joan zen, baina bertan bazituen bi osaba. Euskal Herrian lana bazegoen arren, gauza berriak ezagutzera joan zen. Bere osabek ganduarekin lan egiten zuten. "Zazpirak bat" euskal etxeko bazkide noiz egin zen ondo gogoratzen du. Gaur egun "presidente honorario" dela dio.

Transkripzioa

- Bueno, ni hona etorri nintzan, allegau, hona, Argentinan, "20 de Enero del 51, 20 de Enero del año 51". Bakar-bakarrik. Etxian Plazentzian urten nuan "primero a las cuatro de la tarde, el primero de Enero del año 51". Ze ze ze eguna, e? "Primero de Enero a las cuatro de la tarde salí". Nik e lana fabrikan eitten nabien lana, ondo nabillen baiña, e ba gaztiak, gaztiak eta bueno abenturak eta... ba urten nuan eta. Hamen etorri nitzan hona probatzera, eta aber zelakua dan, zelakua dan, e ze pasatzen dan hamen. Tio nauken ba, hamen tio bat, a bi tio nauken, baiña este... aber ze ze zela ebizen, ta horrek e lana eitten zaben kanpuan, hango ganauekin ta, ba haura zan nere ofiziua, hamendikan ta berrogeta berrogeta bost kilometrora, Aseban, Aseban izena, herri bat, ta bueno etorri nitzan hona, hillebete, febreruan edo marzuan, edo ene, ez naiz akordatzan, akordatzan naiz Zazpirak Baten, "Centro Vascon " sartu nitzan eguna. 18 de abril del año 51.

- Goguan dakazu,e?

- Sartu nitzan, sartu nitzan han lehenengo aldiz, sozio ein nabien, ta ondiok be soziua naiz. Ta oin presidente, presidente naiz, "presidente honorario, el primer presidente honorario de Zazpirak bat".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-06-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com